



*Guraso maiteok:*

*Dakizuen bezala, familiari buruzko gaia lantzen ari gara, eta zuek bidalitako argazkiei esker oso liburu polita gelditzen ari zaigu. Eskerrik asko.*

*Laster, zuen haurrak bere jaiotegunari buruz lantxo bat egin beharko duenez, lau lerro hauen bidez etxean egun zoriontsu hari buruz hitz egiteko eskatzen dizuegu, eta, jakina, baita non jaio zen, zenbat pisatu zuen, zenbat neurtu zuen eta gogoan dituzuen xehetasun guztiak hari kontatzeko ere.*

*Etxean egiteko lan polita da, ezta?*

*Laster arte.*

*Maddalen eta Fermin*